

BELAUNALDI BATEN «FAMILIA AIREA» DUEN LANA

BERTUTE HANDIAK DITU LIBURU HONEK, lan koral batek izan ditzakeenetatik asko. Lehenik eta behin, bertan euskal pentsamenduaren belaunaldi berri baten ordezkari-tza dagoela uste dut. Baieztapen horrek ikerketa zehatzagoa mereziko luke, eta, noski, ez da hitzaurre honen lana hipotesi hori egiaztatzea. Baina, irakurtzen amaitu nuenean, sentsazio hori oso indartsua –eta itxaropentsua– izan zen niretzat. *Jakineko* lantalde historikoaren lidergoaren ondoren, UPV-EHuren jaiotzan eta garapenean sortutako material, ikerketa eta gogoeten ondoren, garai honetan liburugintzan egin den ahaleginaren ondotik, sinisten dut honako hau euskal pentsamenduaren beste aro bat zedarritu dezakeen belaunaldia izan daitekeela. Asmatzen bada, noski, eta alde zurratik onartu beharra dago asmatzea ez dela batere erraza. Ziurrenik, *Jakinen* birsortzea fenomeno honen beste adierazle bat izan daiteke –Andoni Olariaga bera aldizkariaren

batzordean egotea aipa daiteke hemen—. Edonola ere, belaunaldien arteko transmisioari begiratu, baieztatu daiteke belaunaldi berri honetan oso presente dagoela Joxe Azurmendiren ondarea.

Jakina, horrela izanik ere, Goikoetxea, Olariaga, Apaolaza eta Galfarsoro ez dira belaunaldi horretako kide bakarrak. Baina ordezkariak onak direla iruditzen zait. Adin eta jatorri intelektual desberdinak izan arren, lau idazle horiek badaukate Wittgensteinek «familia airea» izendatu zuen hori. Idazlan hauetan, kezka komun batzuk azaltzen dira, independentziaren inguruko arduraz harago doazenak, eta horiei bakoitzak bere erantzunak ematen badizkie ere –puntu komun askorekin, hori ere esan behar da–, argi geratzen da amaieran elkarren artean sarri eztabaidatutako gaiak direla. Gainera, auzi horiek ez dira, inondik inora, liburu honetan agortzen. Ez beraientzat, ziur asko; inola ere ez irakurlearentzat.

Lan honen beste balioetako bat eztabaidak pizteko gaitasuna baita, hain zuzen ere. Testu guztiak oso kritikoak dira, iradokitzaileak, are eta probokatzaileak ere. Autokritika ere egon badago, independentziaren auziaren bilakabide historikoaz ari direnean ez baitira hirugarren pertsonan aritzen, ez dute euren burua bilakabide horretatik kanpo kokatzen; ez guztiz, bederen. Prozesu horiei beren posizioa kontrajartzen diote. Edo, gutxienez, gehitu egiten diote; izan ere, liburu honetan, ekarpenak benetan askotarikoak dira.

Okerra litzateke aipatutako probokazioen alderdi pertsonalean geratu eta iradokitzen dituzten kritiken sakoneko funtsa alboratzea. Zirikatze horiek ez baitira debaldekoak, itxurakeriazkoak. *Independentzia helburu* talde lan honetan parte hartzen duten lau pentsalariak ez baitira, inondik inora, *enfant terribleak*, ez dute izateko borondaterik. Gure mundu txiki honetan, horrelako asko daude, gehiegi. Egia esateko, ia guztiok aritu gara noizbait, zori edo trebezia handiagoz edo txikiagoz, joko horretan. Nolanahi ere, zenbaitek eskola gisa sustatu dute heterodoxiaren ortodoxia, baita barregarrikeriaraino sustatu ere. Idazlan hauetan topatuko dituzun probokazioen zentzua ez da, ordea, gure kosmos intelektual plutoniko eta platoniko honetan posizioa hartzea. Oro har, ahuldade intelektual eta politikoak, hipokrisiak gupidagabe kritikatu arren, idazleok ez dute beren arerioen karikatura egiten, eta, horri esker, ez dute beren burua karikatura bihurtzen. Azaltzen duten pentsamendua indartsua da, ez da bazterrekoa –adi, hori hemen konplimendua da–. Argi dago probokazio horien ondorioz testuok zenbait jende suminduko dutela. Tamalez, sumindu beharko liriatekeen beste zenbait ez da ohartu ere egingo. Hainbat pasartetan neu ere sumindu naizela onartu behar dut. Agian, txikitan esaten ziguten bezala, min ematen badu, sendatzen ari den seinale.

Esaten diren gauza askorekin ados nago, eta, zenbaitetan, irakurtzen ari nintzen bitartean,

«bazen garaia norbaitek hau idazteko», pentsatu dut. Aldi berean, bada ere oker sumatu dudan hainbat baieztapen, argudio. Baina onartzen dut bide horiek funtsa badutela oro har. Eztabaidagarriak dira, oso, baina horixe da beren funtzioetako bat: eztabaidagarriak izatea. Ezerezaren ezereza hain ohikoa den garai eta alor honetan –eta idazle horiek era batean edo bestean maite dituzten autore «postmodernoak», nolabait izendatzearen, maisu dira horretan–, zentzuz hitz egiten da. Formazio akademiko handikoak izan arren, bide horri heldu nahi dionari ezinbesteko erreferentzia intergarriak ematen dizkion arren, *Independentzia helburu* pentsamendu liburu bat da, akademia gaintitzen duen ekarpena. Eta hori, niretzat, bertute handia da.

Lanak eragin didan kezka bat aipatzekotan, erredukzionismo zaharrak erredukzionismo berriekin ordezkatzeko tentazioa aipatuko nuke. Egia da zenbait ataletan gaitz horren aurkako txertoa jartzan dela, baina errigorismoa eta erlatibismoa hain era bitxian nahasten diren garaiotan, tentazio hori beti da arriskutsua. Edonola ere, testuetan baino gehiago horien irakurketa desegokian ikusten dut galbidea.

Bestalde, pentsamendu lan bat izateak ez dio murrizten bulkada praktikoa. Izan ere, liburua etengabe ari da estrategiaz; kritika politikoa eta gure egunerokotasunaren eta bilakaeraren auto-kritika egiten du. Aldi berean, independentziaren

aldeko jardueren indarguneak eta ahulguneak seinalatzen ditu; historia aztertu, eta etorkizunera proiektatzen da; munduko joeren barruan kokatzen dira bertan plazaratutako joerak... Irakurleak ariketa intelektual sakona aurkituko duzu hemen, independentziari buruzko eztabaida publikoari maila ematen dion saiakera. Beren ibilbidea ikusi dugunok badakigu, oro har, lauretako bakoitzak zer pentsatzen duen, zer defendatzen duen auzi honetan eta hartan. Ezagutzen ditugu haien obsesioak, zaletasunak eta fobiak. Baina, Galfarsorok bere testuari buruz baieztatzen duen bezala, idazlan hauetan emaitza borobilagoa dela uste dut. Beren pentsamenduak, artikuluetan eta hitzaldietan sakabanatutako kolpe horiek, hemen modu artikulatuago batean azaltzen dira, neure irudiko.

Unea ere aproposa da. Bertan planteatzen diren eztabaidak izateko unea hauxe delako. Alde horretatik, garai interesgarrietarako lan interesgarria da.

Nolanahi ere, autoreen eta testuen ezaugarri hauek guztiak garrantzitsuak eta interesgarriak badira ere, liburuak badu niretzat ezinbestekoa egiten duen ezaugarri bat. Botereaz ari da, alegia, politikaz. Euskal Herria eta bertako herritarrak ardatz dituen ikuspuntu batetik, oinarri intelektual sendoekin eta etorkizunari begira politikaz mintzo diren idazlanak dira, obra bat da. Eta herri honek politikaz hitz egin behar du; haserretzeraino eztabaidatu behar du politikaz, baldin eta etorkizun hobe bat eraiki nahi badu. Eta hemen,

horretarako pistak ematen dira, bideak irekitzen dira. Askatasunaren, berdintasunaren eta justiziarren aldeko ekarpenak dira hauek, asmo emantzipatzaile batekin eginak. Hori da, zalantzarik gabe, liburu honen bertute nagusia.

IÑAKI SOTO

INDEPENDENTZIARAKO BIDEA,
AUTOBIDE UNIBERTSALA DA

ZALANTZARIK EZ DAGO «GARAI INTERESGARRIAK» ditugula Euskal Herrian, Žižeken hitzekin esateko. Mundu zaharra ari da amaitzen, eta berria oraindik ez da sortu. Bost hamarkadatan bortizkeria mota askok gogor astindu ondoren, ETAK 2011n hartutako erabakiak atea zabaldu dio helburu independentistari beste bide batetik heltzeko. Independentziaren helburua ez zen lortu borroka armatuaren bidez. Orain, baina, beste bide batetik helduko zaio lehengo asmoari. Eta oraindik ez davigu nondik.

Bitartean, auzokideak hasi dira mugitzen independentziaren bidean, tinko mugitu ere. Eskoziarrek erreferendum batera eramán zuten eskaera, eta, galdu arren, argi utzi dute asmoari eutsiko diotela Ingalaterratik independizatu arte. Katalanek 2014an erreferendum alegala egin behar izan zuten, besterik ezean, baina 2015eko hauteskunde plebiszitarioetatik aterata, *Parlament* berriak bere

gain hartu zuen hemezortzi hilabetean Errepublikakatalana aldarrikatzea. Dagoeneko, itzulerarik gabeko dinamikan murgilduta daude.

Euskal Herri independentea gauzatzeko unea heldu den honetan, ordea, pausoa aldatuta harapatu gaitu euskal herritarroi, orbaindu gabeko zauriak miatzatzen eta alderdi politikoak nora ezean, agertoki berrian non kokatu asmatu gabe. Independentziaren trena albotik igarotzen ari den honetan, hara non erregairik gabe gelditu garen makinariari botatzeko.

Liburu honek, une honetan, parada ematen digu hausnarketarako, ezinbestean. Auzokideei begiratzear gain, pentsatu beharko baita zer egin behar den bertan, nondik hasi eraikitzen euskal estatua. Eraikuntza-prozesu berezko horri «euskal bidea» deitu izan zaio azken garaietan. Liburu hau irakurri ostean zerbait argi geratu bazait, zera da, euskal bideak «bide» izan nahi badu, «euskal» iza-teari utzi beharko diola. Olariagak, Galfarsorok eta Apaolazak aldarrikatzen dute gutxiago begiratu behar diegula kontu identitarioei eta diferentzia kulturalari eta gehiago berdintasun politikoari eta balio unibertsalei –demokrazia, giza eskubideak, justizia–. Estatu bat nahi baldin bada, behinik behin. Hala ere, sumatzen dut euskalgintzakoei «mendetasuna errentagarriagoa zaie[la] askatasuna baino» (Galfarsoro). Goikoetxeak uste du «euskal» birsortzeko populazioaren sinesmenak eta pertzepzioak –alde subjektiboa– birsortu behar di-

rela; «hau da, Euskal Herria existitzen dela sinetsi behar du jendeak».

Lau egile horiek ematen dute zer pentsatu, eta irakurlea ez dute epel utziko. Ustez erroturik zeuden usteak egileek ezker-eskuin astintzen dituzte beren artikuluetan. Lantzen dituzten gaiak ikusita, Olariagaren, Apaolazaren eta Galfarsororen artikuluez mintzatuko naiz lehenago, eta ondoren Goi-koetxearen lanaz.

Olariagak atzematen du ideia absolutuen nostalgia pairatzen dugula oraindik, eta apustua egiten du apustuaren alde, hau da, «lurzoru gabe bizitzen ikastea, apustuaren eta zoriaren besoetan», eta eskulibururik gabe egitea, gainera. Egia da Olariagak dioena, politikak asko duela apustutik. Proiektu politiko batek ez du ziurtasunik, ez du bermaturik aurrera egingo duenik, hain zuzen ere uneren batean determinazioa behar izango delako zaharretik berrira pasatzeko. Proiektu eraldatzaile guztien moduan, jautzia egin beharko du airean, lehenago ala geroago.

Apustuaren ideia –eta bermerik ez dagoelakoa– ezinbestekoa da edozein pentsalarirentzat, deseroso suertatu arren. Badiouk ohartarazten digu egia berri baten bila aritzen garenean –esan ez den edo gutxi esan den egia–, gabezia batzuekin egingo dugula topo, batetik egia hori infinitua delako eta bestetik jakintzan eragin nahi duelako, guztiz

finitua bera. Esanezina, bereizezina, erabakiezina eta generikoa suertatuko zaigu prozesu hori. Hau da, prozesua zaila da formulatzeko, zaila da beste prozesu batzuetatik bereizteko, nekeza zaio erabakigarria izatea eta gaitza da zehaztasunez definitzeko. Halakoxeak dira apustuak, proposatzen baitute bidea egitea dakigunetik ez-dakigunera, ibilian-ibilian, aйдuru noiz salto egingo. Horrexegatik egin zitzaidan deigarria EAJko buruzagiei –Ortuzar, Urkullu– entzutea «oinak lurrean» ari direla independentziaren alde, kostatzen baitzait imajinatzea nola ibil daitezkeen, oinak lurrean itsatsirik baldin badituzte.

Liburu honetako egileek, beraz, apustuaren alde egiten dute, eta, hasteko, argi uzten dute zerk ez duen balio estatugintzan aritzeko: hizkuntza, kultura eta historia, alegia. Hau da, erresistentziaren logikan kokatzen diren euskarriak, lubakiak sortzeko balio dutelako, baina ez dutelako balio estatua eraiki nahi duen jendartearentzat. Apaolazak dioen moduan, «granitozko egia borobilek granitozko paretara karratuak sortzen dituzte» eta handiago egiten dute amildegia «gu» eta «haien» artean.

Egileek sumatzen dute ideia horrek erresistentzia eragingo duela euskalgintzan eta ingurune nazionalistetan. Eta ez daude oker, eztabaida hori ez baita berria. Badira urte batzuk euskalgintzak tarte batean eztabaidan jardun zuela bi kontzeptuen inguruan, metafora bidez plazaratu bazituen ere: «aitaren etxea» (estatua) eta «amaren sua» (euskarra). Hautua egin zutenek suaren alde esaten zuten

nahiago zutela maizter segitu eta suari eutsi; beste-
ra esanda, euskarari eutsi, nahiz eta estatu propioa-
ren kaltetan izan. Zertarako nahi zuten etxearen
jabe izan, barrutik hutsik egonez gero? Hautua egin
zutenek aitaren etxearen alde, ordea, etxe propioa
edukitzea lehenesten zuten, menpeko ez izateko eta,
gainera, uste zutelako –bide batez– estatu propioak
hobeto babes zezakeela amaren sua eta hari esker
berma zitekeela sua inork ez iraungitzea.

Sarri entzuten diren galdera horiei Apaolazak gor-
din erantzun die bere artikuluan: «Zertarako indepen-
dentzia ez bada sozialista?» edo «zertarako indepen-
dentzia ez bada Euskal Herria euskalduna izango?». Apaolazaren ustez, «estrategia esentzialista modu go-
gor batez ulertzen dutenek, sakon-sakonean eta kon-
trakoa dioten arren, ez dute independentziarik nahi»,
eta uste du «argizari museoko zaindaria» direla.

Bide beretik jotzen du Galfarsorok, *herri euskaldu-
na* kategoria politiko ahula dela esan ondoren.

Badakigu, noski, *politika/kultura* binomioak so-
bera bihozmin sortzen duela euskalgintzan. Arazoa
horrela planteatuko dut, zuzen-zuzen: estatu inde-
pendente berri baten bidean, euskalgintzak oro har
ez du behar bezala *historizatu* nahi inguruko estatu
inperialista zaharren eragin kolonizatzaile eta mende-
ratzailea; bai, aldiz, nahi du gaur egungo euskararen
egoera *histerizatu*, ondorioz zer eta arranguraren zein
frustrazioaren katramila erretorikoak nori eta Euskal
Herriko ezker independentziazaleari botatzeko.

(Galfarsoro)

Galfarsororen ustez, ezker independentistek ez dute euskalgintzak besteko ardura hartzen euskararen alde, ezkerak uste baitu nahikoa dela euskal estatu bat edukitzea euskararen iraupena *de facto* bermatzeko, estatu independente batean euskara inposatuko baita hiritarren «kontsentimenduari-kin». Horra zergatik independentistek agertzen diren axolagabe euskararekiko, eta zergatik, ifrentzuan, euskalgintza gotortzen den parametro etniko-kulturaletan.

Galfarsororen ildo beretik, Apaolazak azalarazten du zein arriskutsua den etnian kokatzea independentismoaren muina, etniaren definizioa definitzen baitute politikatik kanpo daudenek eta, gainera, definizioak ez baitu aintzat hartzen etnikoak ez diren faktoreak. Naziotasunak, aldiz, «pentsatu» egiten du nolako nazioa komeni zaion, berak erabakitzen du nori dagokion subiranotasuna eta nor den subjektu politikoa. Nazionalismoak asmatzen du nazioa, finean. Etniak ez du kontzientzia politikorik, ezin du subjektu politikoa artikulatu. Nazioak bai.

Independentziarako ardatza jartzen badugu hizkuntzan, etnian edo identitatean, dioskute egile horiek batera, prozesu independentistatik kanpo geldituko direla etniarekin identifikatzen ez direnak. Prozesuaren motorra langile klasea baldin bada, «oligarkia geldituko da prozesutik kanpo», Apaolazaren ustez. Etniko-kulturala ez da aglutinantea baztertzaila baizik, ez da indartsua eta ez

da eragingarria. Estaturagintza ez da tribugintza, eta, hartan jardun nahi badugu, «euskalduna desagertu egin behar da», Galfarsororen hitzetan. Parametro esentzialistak bakarrik aintzat hartuz gero, ez dago estatugintzan aurreratzerik, Olariagaren arabera.

Hiru egile horiek adierazten dutenez, Euskal Herriak estatu izan nahi badu, abiapuntua ez da nazioa eta berorrek in identifikatzen diren herri-tarrak. Estatu politikoak ez baitu behar identitate-tzat prediku kulturalik, integratu beharko baititu komunitate etniko baten partaide sentitzen direnak eta sentitzen ez direnak. Areago, herritar horiek guztiak gabe, ez da sortuko estaturik. Sinpleki adierazteko, nazioan etxeok daude; estatuan, aldiz, etxeok ez direnak ere bai. Eta estatua izan nahi badugu, has gaitzen pentsatzen nola erak-ri etxeok ez direnak.

Egileen azalpenak irakurtzean gogoratu dut Borgesek zer zioen islamaren liburu sakratuaz, Koranaz: Koran osoan ez da gamelu bakarra ere azal-tzen, musulmanek ez dutelako sinbolo beharrik jakiteko zer diren. Badakite musulmanak direna, eta ez dute behar identitate-sinbolorik.

Borgesek ideia hori entzun nuenean, Badiou-ren parametroetan ulertu nuen: Koranak mota askotako fededunak hartzen ditu bere barnean, eta fededun guztiak batu, ez ditu batzen etnizismoak, kulturak edo sinbolismoak, baizik eta proiektu erlijiosoak. Fededunak fidelak zaizkio proiektuak eraiki zuen egiari, ez islamaren osagai etnikoari.



Faktore objektiboek ez dituzte baldintzatzen faktore subjektiboak, eta hizkuntza, kultura edo historia erabil daitezke lurraldea justifikatzeko, baina inolaz ere ez prozesu independentista bati eusteko, liburu honetan dioskute. Ez dute balio, elementu berriak ukatzen dituztelako eta tradizioak ez duelako nazio-kontzientzia eragiten. «Abertzaletasunak kalte egiten dio independentziaren estrategiari», dio Apaolazak.

Egoera, diote, are eta latzagoa da, ezin baita esan euskaradunak hizkuntza jakite hutsagatik etniako kide sentitzen direnik, ezta langileek ere langile klasekoa izate hutsagatik ezkerreko balioak dituen estatua nahiago dutenik.

Honela, bada, eta une honetara helduta, zer proposatzen digute egileek? Beraien proposamena da operazio unibertsalizatzailean jotzea kultura partikularrik gabe. Hau da, balio unibertsalak amalgama gisa aldarrikatzea eta estatugintzan jardutea, eskusiorik gabe, alde aurreko baldintzarik gabe. Azken finean, independentista izateko, eskatzen da independentzia nahi izatea, eta ez, ezinbestean, inongo talderen kide izatea alde aurretik.

Balio unibertsal horiek dira, hurrenez hurren, giza eskubideak, justizia, demokrazia eta berdintasuna. Eta, balio demokratiko horiekin batera, erabakitzeo eskubidea. Herritarrek balio horiekin erlazionatu behar dute independentziaren aldeko aldarria. Mugimendu independentista demokraziarekin eta justiziarekin erlazionatu behar dute.

Subiranotasuna izan behar da giza eskubideen sinonimoa. Garai batean, ordea, borroka independentista bortizkeriarekin identifikatu zen, eta «demokratak/biolentoak» binomio maltzurrian korapilatu zen eztabaida politikoa. Zein garrantzitsua den politikan eztabaida leku egokian kokatzea!

Urteetan abertzaletasunak (subjektu independentista eratzeko estrategiak) unionismoaren joko zelaia eta arauak onartu izan ditu, eta, ondorioz, bere borroka unibertsalen defentsa gisa planteatu beharrean partikularren defentsa moduan definitu du. Hein handian, unionistek ezarritako dikotomia ere irentsi egin dugu independentistok, euskal estatua nahi izatea partikularren aldeko defentsa moduan planteatu izan baita maiz. Horrela, arerio politikoari, unionismoari, unibertsalaren monopolioaren giltza oparitu zaio. Horienak lirateke, ondorioz, *aukera politiko justua, demokratikoa, berdintasunaren aldekoa...* Hitz batean, *unibertsala*.

(Apaolaza)

Politikan, ezinbestean markatu behar da joko-zelaia, eztabaida-eremua mugatu. Lehenik, periodoa ezarri, noiz jartzen dugun kontadorea zeroan eta noiztik aurrera hasiko garen zenbatzen bakoitzaren zorra eta hartzekoa. Bigarrenik, urratsak zehaztu, faseak, atalak. Hirugarrenik, erritmo politikoa markatu, azelerazio-uneak eta pausak. Eta, azkenik, *last but not least*, lexikoa, hitzek adieraz dezatela norberak eman nahi dien esanahia, Humpty Dumptyk zioen moduan.

Independentista garenok geureganatu egin behar dugu komeni zaigun lexikoa, balio unibertsalak adierazteko esamoldeak, identifikazio zuzena sor dadin balioen eta helburu soberanistaren artean. Adibide ona ikusi genuen Idoia Mendiak eskubide demokratiko akasgabea den erabakitzeko eskubidearen aurka zegoela argudiatu «behar» izan zuenean. Deskolokata, Mendiak esan zuen «ezin da demokrata izan eta aldi berean erabakitzeko eskubidea defendatu; erabakitzeko eskubidea amarru kontzeptuala da guxtiengoak gehiengoari gaina hartzeko».

Nago lexikoaren eremuan buru egin behar dugula eta geure egin interesatzen zaizkigun kontzeptuak, arerio politikoak bere egin aurretik. Binomio interesgarria dugu, esaterako, *legala/legitimoa*, non norberak beretzat hartzen duen legitimitatearen printzipioa eta kritiko agertzen den inposizio hutsa den legearekin. Legala –Nietzscheren moralaz bezala– unean unekoa da, eta botere-tsuari egiten dio mesede. Legitimoa –Kanten etika bezala– ongiaren arlokoa da, edozein garai edo espaziotan. Diskurtso independentistak bere egin behar luke legala/legitimoa binomioa, legeak eskubideak zapuzten dituelako eta eskubideei ezin zaielako legitimitatea ukatu. Gainera, moralak biolentzia guztiak jartzen ditu arauetatik kanpo. Etikak, ordea, ez.

Helburua da, esan bezala, balio unibertsalak behin eta berriz aldarrikatzea, geure egitea, independentismoarekin identifikatzea.

Apaolazak, Olariagak eta Galfarsorok diote unibertsala lehenetsi behar dela partikularren kalteetan, eta, neurri handiagoan ala txikiagoan, euskalgintzari ihardesten diote «euskal» izateari utzi behar diola, estatugintzan aritu nahi badu.

Euskalgintzaren deskarguan, esan nezake, ordea, euskalgintzak noizbait unibertso bihurtzeko beharrezana sentitu zuela, atzeman baitzuen gero eta txokorago zegoela eta bere proiektuari kalte egiten ziola «tribuan» geldituta –Galfarsorok darabilen hitza erabiltzeko–. Kulturalki eremu murrizta zuen, eta ekonomikoki itota zegoen –sos guztiak Guggenheimerara bideratuta–, eta, horri buelta emateko, euskalgintzak jardun-eremua hedatu nahi izan zuen, eta unibertsaltasuna aldarrikatu zuen berezkat. Euskararen Unibertsoa sortu zuen 1995ean, eta, bi urte geroago, Kontseilua (EGEK).

Esan liteke une batean euskalgintzak erabaki zuela logika espaziala irauli nahi zuela, sistemak egituran esleitu zion gunetik mugituko zela eta abzisak eta ordenatuak berrantolatuko zituela bere burua erdigunean kokatzeko.

Gaur egunetik ikusita, badakigu ahalegin hark ez zuela lortu partikularra unibertsalizatzea eta, gehienez ere, partikularra egonkortzea lortu zuela, prezio handia ordainduta: batetik, bere burua behartu zuen partikular horren *limes* gehiago zehaztera, eta are gehiago definitu zuen nor zen kidea eta nor ez, nor zen barrukoa eta nor kanpokoa; bestetik, iniziatiba hark euskalgintza erakundetu

egin zuen, egitura bihurtu. Euskalgintza askoz ere unibertsalagoa zen mugimendu gisa interbentzioak egiten zituenean eta gaitasun zuzena zuenean jendarteari zein erakundeei interpelatzeko.

Akats horiekin batera, euskalgintzak beste kalkuluerre bat egin zuen pentsatuta euskaraduna izateak baduela dimentsio politikoa. Uste izan genuen nahikoa zela jendeari euskara irakastea automatikoki independentista bihurtzeko, kontuan hartu gabe subjektu independentista izateko ez dela hizkuntza jakin behar, baizik eta nahikoa dela nahi izanda, borondatea adierazita.

Apaolazak ematen dituen Kataluniako datuen arabera, independentista katalanen artean bakkarik % 15ek jartzen du identitate nazionala arrazoi nagusi modura independentziarako. Baina deigarria da ikustea Katalunia Espainiaren parte izatea nahi dutenen artean % 46k dioela bere arrazoi nagusia sentimendu nazional espainiarra dela.

Eta errealitate hori ikusita, berriz ere mahai-gaineratzen zaigu galdera: nolatan sortzen da, bada, subjektu independentista?

Faktore objektiboek ezin dute zedarritu subjektu politikoa, kategoria politikoa delako, ez parametro objektiboa, esaten digute. Subjektu politikoa ezin dute definitu linguistek edo soziologoen. Subjektu politikoa ez da, gainera, ezaugarri jakinak dituen kolektibo zehatza. Sinple esateko, subjektu politikoa da izan nahi duena, hau da, lortu nahi den helburu politikoarekin bat egiten duena.

Badiouk esaten digu subjektu batek, egiaren prozesu baten bidez, ez-posiblea posible egiten duela edo, hobeto esateko, aurretik ez-posibleztat jotzen zena egiten duela posible. Utopia erreal bihurtzen duela.

Baina horrek guztiak apustu dosi handia eskatzen du, Galfarsorok gogorarazten digun moduan, eraikuntza historikoa kontingentea delako, hau da, zoriaren arlokoa da, aldez aurretik ikusezina, «ezinezkoa da [baita] erabakitzea zein den independentzia garaiz edo sasoiz lortzeko une egokia». Horixe baita kontingentzia: baliteke gertatzea ala ez gertatzea; eta, gertatzekotan, ez dago aldez aurretik jakiterik noiz gertatuko den, eta zein den une egokia.

Apaolazak dioen moduan, *a posteriori* jakin daiteke nor den subjektu, norbanako batek ezin baitu kausarekin bat egin oraindik planteatu ez denean.

Beraz, diot nik, zelan ezin den iragarri jazoe-ra, halaxe ere ezin da subjektu politikoa iragarri, norbanakoa –eta norbanako multzoa– subjektu bihurtuko delako injustiziarri aurre egiteko kemen nahikoa biltzen duenean, edonondik datorrela ere eta aurretik kolektibo zehatza osatu ez badu ere. Hau da, subjektu bihurtzea prozesu bat da. Erabaki bat dago tarteko; determinazioa adierazi behar da, hautu kontzientea, zerbaiterako borondatea. Horrexegatik hartu dut faltan, bereziki Galfarsororen eta Apaolazaren testuetan, aipamen bakarra ere ez egitea subjektibatzeke prozesu horri. Nahigabea eta

Kuraia ez dituzte aipatu, ezta Interpelazioa ere, eta ezinbesteko osagaiak dira subjektuaren eraketan.

Jazoera gertatzen denean injustizia baten aurka –jazoera beti da lege injustuaren aurkako–, estatuak –superniak, sinbolikoak– egundoko presioa egiten du *statu quo* horri eusteko, eta presio horrek nahigabea sorrarazten dio indibiduoari, injustiziarri aurre egiteko kuraia nahikoa bildu arte. Orduan mintza gaitzke subjektu politikoaz, indibiduo determinazioari esker subjektibatu egiten denean.

Subjektuak gainditu arte superniak berari amore eman dezan eragiten dion presio alimalekoa, gai izan arte presioaren gainetik bere determinazioa gailentzeko, ordura arte, bada, ez da subjektu bihurtuko, injustiziak ez duelako aise egingo alde batera justizia berria abia dadin.

Prozesu horrek guztiak nahigabe dosi handia eragiten du, pertsona suntsitzeraino eragin ere –baita modu fisikoan ere hainbat kasutan–. Lacanen nahigabeaz ari gara, alabaina, psikoanalisiak ulertzen duen moduan, eta ez filosofia klasikoak duen kontzeptuaz. Spinozak, esaterako, uste du nahigabea beldurra dela, beldurra latza izan den esperientzia berriz gertatzeari. Haren ustez, nahigabea eragiten digu aldez aurretik jakiteak, gaitza lehendik ezagutzeak. Zerikusirik ez du Lacanen kontzeptuarekin. Horren aburuz, nahigabea zera da, erabaki arteko epealdian sentitzen dugun egonezina. Interpelatua izan eta erabakia hartu arte. Presioa sentitu eta nondik jo deliberatu arte. Behin

erabakia hartuz gero, liberazio modukoa sentitzen du subjektuak. Nahiz eta jakin erabakiak ondorioak dakarzukiola –eta ardura sentitu–, desagertuko zaio nahigabearen harra.

Nahigabea gainditu eta presioari aurre egiteko gai izan diren norbanako horiek subjektibata azalduko dira boterearen aurrean. Presiopean amore eman dutenek, aldiz, dessubjektibatze-prozesu luze eta nekeza pairatuko dute, eta saiatuko dira justifikazioa ematen. Etsaia magnifikatuko dute lehenik, unibertsalizatu nahi izango dute beren ezintasuna –«ezinezkoa zen, boteretsuegia da etsaia»– eta, txarragoa dena, beren burua zuritze-ko, saiatuko dira gainontzeko guztiek ere amore eman dezaten. Zeren, egiaren bila norbaitek nahigabea gainditzen baldin badu eta aurrera egiteko kuraia nahikoa biltzen badu, orduan desmuntatu egiten delako ezinezkoa delako argumentua. Amore eman duenak behar du beste guztiek ere amore eman dezatela, bera garaiturik ez sentitzeko.

Estatugintza bezalako proiektu batean subjektu politikoak behar dira, zalantzarik gabe. Subjektibaturik dauden subjektuak. Nahigabea sentitu eta berau gainditzeko kuraia bildu dutenak. Zeren, gerta baitaiteke bestelako «subjektu» motak ere agertzea, ausarkeriaz jokatzten dutenak. Badiouk *téméraire* deitzen ditu. Superniaren presioa sentitzen dute, eta aurre egiten diote, baina akzio-erreakzio mekanismo hutsez. Ez dago proiekturik, ez dago egia berria bilatu nahirik, ez du planteatzen injus-

tizia ordezkatzea justiziarekin. Subjektu horiek ez dute bide luzerik egingo.

Subjektibatzearen sekuentzia osoa deskribatzeko, Jazoera gertatzen da lehenik, eta norbanakoa oldartu egiten da; Nahigabea sentiarazten dio sistemak presioaren presioz, Kuraia agertzen du indibiduoak, Erabakia hartu eta Apustua egiten du, Interbentzioak gauzatzen ditu –hamaika protesta mota–, eta Interpelazioa egiten dio sistemari, eta tinko eusten dio Justizia edo Egia baten alde.

Balio unibertsalak bakarrik aldarrikatzen baditugu baina ahazten badugu helburu horiek subjektibatu den indibiduoak gauzatu behar dituela, orduan marxismo zaharrea murgiltzen ari gara oraindino. Ulertzekoa da zergatik egiten den gogorra zain egon beharra. Zain ea noiz gauzatzen den jazoera eta zain ea nor bihurtzen den subjektu.

Ulertzekoa da, beraz, Apaolazak bere buruari egiten dion galdera: «Zer egin beharko genuke independentistok: gertakizunaren zain eserita egon eta datorrenean independentziaren aldeko eraginak izan ditzan otoi egin? Beharbada, bi bide horien alderdirik egokiena hartzen duen beste bide bat beharko dugu [...]. Zein izango litzateke bide hori? Hegemoniarena, dudarik gabe».

Olariagak hegemonia aipatzen du liburukideek aipatzen duten heinean, eta esaten digu prozesu sozial eta politikoak funtsatzen direla prozesu hegemonikoetan, eta antagonismo politikoak –indar korrelazioak eta diskurtsoak eratu dituen antago-

nismoak, alegia- kontuan hartuta abiatzen direla politika eraginkorrak.

Galfarsorok hegemonia darabil kualitatiboki konpentsatzeko gutxitasun kuantitatiboa: «Hegemonia kontua da, eta, kopuruei begira bakarrik, ez gara inoiz gauza izango interpelazio arrakastadunak egiteko. Hor bai ez zaizkigula kontuak inoiz aterako. Hor bai ez ditugula frantses edo espainiar hiritar unibertsalak inoiz konbentzituko».

Apaolazak azaltzen du *hegemonia* kontzeptua erabiltzen hasi zela marxismoaren desfase bati irtenbide teorikoa emateko. Teoria marxistak ezin zituen azaldu jendarteko gertakizun asko subjektibotasuna kontuan hartu gabe eta, hori ezean, hegemonia kontzeptuaren bidez azaldu nahi izan zituen gertakizunok.

Apaolazak Gramscik hegemoniaz duen ideia dakar orriotara, Laclaren azalpenen bidez: *hegemonia* zuzendaritza politiko, moral eta intelektuala da. Zuzendaritza hori klase sozialen gainetik dago, sektore ezberdinak hartzen ditu, lidergo intelektuala eta morala dauka eta lortzen du «borondate kolektiboa» sortzea. «Gramscik adierazten du «borondate kolektibo» hori ezin dela eratorri logikoki norbanakoak jendartean izan dezakeen posizio edo baldintza objektiboetatik (klasea, kultura...). Borondate kolektibo hori subjektiboa da, eta, beraz, subjektibotasun horretan egin beharko da indarra. Eta indar egiteko modurik eraginkorrena alor moralean aritzea litzateke».

Laburbil dezagun orain arte zer esan dugun hegemoniaren inguruan, sinplifikazioak duen arriskua gorabehera. Honaino entzun dugu *hegemonia*, a) ordezkoa da, erabil daitekeena jazoera gertatu artean, b) prozesua da, laguntzen duena indar korrelazioak eta diskurtsoak eratzen, c) baliabidea da, marxismoak erabiltzen duena gertakizuna azaltzeko *subjektibitatea* erabili ordez, eta d) borondate kolektibo subjektiboa da, zuzendaritza batek sortzen duena.

Ikusten dudan moduan, hegemoniaren inguruan ikuspuntu guztiek, modu batera ala bestera, aitortu egiten dute zein garrantzitsua den faktore subjektiboa prozesu hegemonikoetan, baldintza objektiboak ez-nahikoak baitira ideia batzuk –edo kolektibo batzuk– besteen gainetik gailentzeko.

Horregatik, harrigarria suertatzen da orain, subjektibitatearen teoria eta praxia horren hurbil eta erabilgarri dugun unean, berriz atzera egitea eta marxismo zaharraren parametroetan murgiltzea. Harrigarria, hegemonia «bitarte» bat izatea, jazoera eta subjektibatze-prozesuak sortu artean.

Nire ustez, hegemoniatik inoiz ez da etorriko deribazioa; ezin izango du inoiz ordezkatu jazoerak sinbolikoari aurre egiteko duen gaitasuna, zeren egia baten prozesuan beti-beti beharko baita aldagai subjektiboa; eraldatzeko, lehenik, eta horri eusteko, ondoren. Hegemonia eraikia da, bilatua. Jazoera, ordea, berezkoa. Artearen, zientziaren eta politikaren historian, mugarriak ezarri dituzten egiak, jazoera batetik eratorriak dira. Egia berriak

interpelatu du jakintza, sinbolikoa. Superniaren presiopean makurrarazi nahi izan dute. Artean eta zientzian, inoiz ez da egia berririk sortu kolektibo hegemoniko baten eraginez. Politikan ere ez. Kontraesankorra litzateke pentsatzea egitura bihurtu den horrek apurtuko dituela sinboliko eta imajinario zaharrak.

Orduan zer egin «bitarte» horretan? Ekin. In-sistitu. Behin eta berriz aldarrikatu balio unibertsalak, une oro salatu injustizia, aldarrikatu giza eskubideak, borrokatu berdintasunaren alde, azaldu zer den demokrazia. Behin eta berriz, une oro, egunero-egunero. Balio unibertsalak defendatu munduko gizaki guztientzat, edonor dela eta edonongoa dela.

Balio unibertsalak aldarrikatu, bai, baina betiere leku batean eta garai batean, betiere errealitate zehatz bati lotuta, zeren, azken finean, «borroka historiko konkretuetan erabakitzen da [baita] unibertsalaren patua», Galfarsorok dioen moduan. Guztiok bat gatoz esatean unibertsala partikularretik abiatzen dela, eta ez dagoela unibertsalik partikular batean oinarritzen ez denik.

Beste modu batera ere esan daiteke, Apao-lazaren ikuspuntutik: «Hegemoniarako borroka, hortaz, norberaren taldeak lehenesten dituen partikular horiek unibertsal bilakatzeko borroka da. Unibertsala moztururiko partikularra da». Baina, adi nola ulertzen den partikularra: «Eskari politiko partikularrak azpimarratzen badira, diskurtso hori

ez da sekula hegemonikoa izango [...] ezinezkoa delako soilik partikulartasunari erreferentzia eginez jendartearen “borondate kolektiboa” finkatzea».

Balio unibertsalen artean, bat berdintasuna da. Eta berdintasuna dugu Goikoetxeak gehien landu duen kontzeptua bere lanean. Baina aurretik bere buruari galdetu dio ea nola sortzen den diferentzia. Eta erantzuten du erakundeek lehenetsi egiten dituztela zenbait identitate, estrategia, espazio, denbora eta marko. Besteen kaltetan lehenetsi ere, eta halaxe sortzen da diferentzia.

Diferentzia (eta berdintasuna) estatu erakundeek birsortzen dute, botere-egiturek. Eta horrek darama pentsatzera erakundeak beharrezkoak dira, beraiek markatzen dituzte-eta diferentzia eta berdintasuna. Ez bakarrik diferentzia. Erakundeek baldintzatzen dute, halaber, ongizatea eta gaizkizatea. Baina, alta, erakundeek egiten dutena, gizartearen presiopean egiten dute. Beraz, mobilizazio eta ekoizpen mailek eragina dute ahalmenetan.

Goikoetxeak Euskal Estatuagintza Feminista jarri du helburu, eta aurreratzen du bi modutara kontzeptualiza daitekeela estatua, egitura moduan eta estrategia moduan. Egitura moduan kontzeptualizatzen bada, berdinketa maila baldintzatuta geratuko da. Estrategia moduan kontzeptualizatzen bada, ordea, teknologia eta praktika multzoek naturalizatuko eta kudeatuko dute lurraldea.

Haren ustez, euskal estatugintza borroka zehatzen erakundetze-prozesua bada ere, ez da zuzena irudikatzea estatugintza batetik eta herrigintza bestetik, zeren eta herria estatalizatuta baitago eta estatugintza herritarrek egiten baitute.

Diferenziaren kontzeptura bueltatuta, egileak ez du uste diferentzia halabeharrez asimetrikoa izan behar denik, baina bada, eta adibide moduan jartzen du gizarte patriarkala, non emakumeen eta gizonen arteko diferentzia botere diferentzia den, diferentzia politikoa, *sexua* kategoria politikoa delako.

Goikoetxeak dio pentsamendu garaikidea heterosexuala dela eta ez dela ideia multzo bat, bai zik eta erregimen politiko bat, patriarkatua alegia. Eta bat nator berarekin puntu honetan, baina ez dut konpartitzen psikoanalisiaz egiten duen azterketa.

Freudek, psikoanaliaren aitak, Kanten ideia hartu eta emakumea gabezia eta desbideratze gisa azaldu zuen, filosofo eta zientzialari gizon mende-baldar guztiek bezala [...]. Honako hau da psikoanali freudiarraren argudioa: gizon eta emakumeen maila etikoa eta morala ez da berdina.

(Goikoetxea)

Luze joko luke azaltzeak psikoanaliak emakumez dioena. Eta psikoanaliaren barruan Freudek eta Lacanek ziotena. Lacanen esaldi famatuak, *la femme n'existe pas* –eta emakumea L barratua- ren bidez irudikatzeak– bazterrak nahasi zituen

feminismoaren arloan, emakumearen izate bera ukatzen zuelako.

Gutxitan aipatu izan da, ordea, nola segitzen zuen esaldiak: «emakumea ez da existitzen, emakumea gizonaren ametsa da; emakumeak daude». Hau da, Lacanek zioen, batetik, ez dagoela emakumeA, bakarra eta generikoa, baizik eta «emakumeak», eta banan-banan direla emakume. Bestetik, Lacanen esalditik ulertu behar dugu ez dagoela identitate femeninorik edo, bestera esanda, ez dagoela emakumearen signifikante unibertsalik. Bada, ordea, gizonaren signifikante unibertsalak, «gizon» kontzeptuak bi generoak hartzen baititu bere gain, maskulinoa eta femeninoa. Ideia beraren aldagaia da Goikoetxeak dioena: «Bi gizonetik bat emakumea izango da patriarkatuan, eta horiek eunukoak bezala izango dira heziak».

Psikoanaliaren begietan, «emakumea» ez da existitzen. Absentziaren kontzeptu lakaniarretik harantzago, Badiouren proposamena da proiektu bat egitea, sortzea, finean emakume kontzeptua konstruktua bat baita eta, nolabait, bat egiten du Simone de Beauvoirrekin, horrek zioenean *on ne naît pas femme, on le deviene* –emakumea ez da emakume jaiotzen, bilakatu egiten da–.

Goikoetxeak ere Simone de Beauvoirren ildo beretik jotzen du dioenean «ez dago emakume guztiok berdin egiten gaituen esentziarik», emakume izatea ez delako erartortzen esentzia bera edukitzetik, baizik eta botere hegemonikotik kanpo

egotetik, hau da, subalternoa izatetik. Goikoetxeak bezala, Beauvoirrek ere bereizten zituen «emakume izan» eta «emakume egon»; munduan egoteko modu batek (egoera) emakume izateko modua (izaera) baldintzatu duela esaten zuen. Ondorioz, pentsa liteke egoera aldatzeak izaeran ere aldaketak eragingo dituela.

Egoera hori da Goikoetxeak aldatu nahi duena. Estaturagintza feminista batean eraldatuko litzateke jendarte patriarkalean dagoen «normalitatea». «Normaltasun osoz bizi dena da normalitatea. Egunero emakumeak bortxatu eta akabatzea norma da gure gizartean, demokraziaren funtzionamendu normalaren parte da».

Goikoetxeak uste du demokratizazio feministaren bidez alda daitezkeela kapital sinbolikoak, herritarren kooperazioaren bidez, bai, baina baita gatazkaren bidez ere, estatua baita tresnarik egokiena biolentzia modu eraginkorren gauzatzeko eta, beraz, «berdintasuna ere modu eraginkorren gauzatzeko». Beraz, «euskal estaturagintza feminista baten ikuspuntutik gakoa ez da nola deuseztatu estatua; kontrara, estatua nola erdietsi da gakoa».

Argumentua da estatu aurreko/gabeko komunitateetan diferentziak ikaragarriak direla, komunitatea eta familia direla biolentzia gehien gauzatzen duten erakundeak eta klase diferentziak horiek guztiak neutralizatzeko ezinbestekoa dela estatu erakundeek esku hartzea. Berdintasuna ez baita «gertatzen»; inposatu egiten da.

Zakilak jartzen dira, sistematikoki, emakumeek egon behar luketen boteregune eta erabakiguneetan. [...] Gizonek gobernatzen dute zakila dutelako, ez dirudunak eta ez jakintsuak direlako.

(Goikoetxea)

Puntu honetan, bi ideia ekarri nahi nituzke hona, biak psikoanalisiak garatuak. Batetik, psikoanaliaren ikuspuntutik sexu biologikoa ez da bereizgarria. Badago izaera maskulinoa eta badago izaera femeninoa, indibiduoaren sexua zein den gorabehera. Bestetik, sexuak –zakila ala alua edukitzeak– ez du pertsona egiten gizon ala emakume. Emakume bilakatzen gara subjektibatze-prozesu baten eraginez. Eta aludun askok oraindik ez dute burutu emakume bihurtuko duten prozesu subjektiboa. Horrela ulertzen da emakume «zakildunak» ikustea gobernuetan, edo emakumeek balio patriarkalak transmititzea eskolan zein familian. Aluduna izateak ez du bermatzen «emakume» izatea.

Aurreko orrialdeetan, subjektu independentistaz mintzatzean, esan dudan bezalaxe, emakumeak ere subjektu bilakatu beharra du subjektibatze-prozesu baten eraginez. Baitatik atera behar du –barnetik ezin baita ezer eraldatu–, eta bere burua asmatu, hausturaren bidez. Emakume izate hutsak –alua edukitzeak–, beraz, ez du bermatzen subjektu politiko aktibo bat daukagunik balizko estatu-gintza feministaren alde. Emakume horrek pairatzen duen opresioari aurre egin arte eta presioak

eragiten dion nahigabeari kuraiaz erantzun arte, ez da subjektu bihurtuko proiektua gauzatzeko.

Bitartean, emakumeak izango du «esklaboaren sindromea», Hegelen terminologian, eta, sindrome horretatik askatu ahal izango da, nahigabeari aurre egiten dion heinean, Kojevek azaldu zuen moduan Hegel aztertzean.

Badiouekin batera, esan dezakegu emakumea dagoela –kontzienteki, arrazionalki– ez dagoen lekuan; emakume bilakatzen da bere burua asmatzen duenean, egiaren prozesu baten bidez hausten duenean. Meryl Streep-ek –emakume ez-kondua eta beste gizon batekin maitemindua *The Bridges of Madison County* pelikulan– ondo adierazi zuen maiteminak zer eragiten zion: «Inoiz ez naiz izan orain baino niago eta, hala ere, ez dut neure burua ezagutzen». Lacanek esango zuen, «pentsatu egiten dut ez nagoen lekuan; eta ni neu nago pentsatzen ez dudana lekuan». Subjektuaren hausturaren zantzua.

Haustura datorkio emakumeari, Lacanen ustez, faloarekin duen erlaziotik: faloarekin identifikatzen da, baina gozamen falikoak ez du femeninoa asetzen. Emakumea bera da eta Bestea da aldi berean, hori paradoxa: ez «du» sexurik, eta bera «da» sexua. Bere burua hausturan bakarrik ezagutzen du, zatiketan.

Lacanek emakumearen hausturaz duen ikuspuntuak baino gehiago asebetetzen nau Badiouk ematen duen azalpena emakumearen ezinegonaz,

eta zerikusia du egiturarekin, hau da, egitura maskulinoan emakumeari esleitu zaion espazioarekin. Espazio horretan, gizonetza da erreferentzia, eta emakumeak errefusatu egiten du «dagokion» kokapena, baina jarrera ez da ordezkotza sortzea, baizik eta dagoenari ezezkotza ematea. Frustrazioa gizonetzaaren aurka isurtzen, hari aurpegiatzen dio espazio horretan eman zaion kokapena.

Tamalez, jarrera horrek ez dio mesederik egiten egituratik ateratzeko, bere horretan mantentzen du eta. Langilearekin eta ugazabarekin konparatuko bagenu –Goikoetxeak egiten duen moduan–, esan genezake langileak ugazabari leporatzen diola bere menpeko izatea eta, lan baldintzak hobetu arren, inoiz ez du pentsatuko merezi beste jasoko duenik ugazabaren aldetik. Baina langilearen espektatiba asebetetzea ezinezkoa da. Ugazabak inoiz ezin izango du ase langilearen eskaria langile/ugazaba egituran kokatuta dauden artean. Egitura-langilea langile-subjektu bihurtu arte, eta, berezko egitura sortu arte, ez dago konponbiderik.

Emakumea, estatugintza bezalaxe, proiektuak dira, gauzatzeko dauden proiektuak. Halaxe azaltzen dute Lacanek eta Badiouk. Baina bien artean badago aldea, ordea: Lacanen abiapuntua jatorrizko gabezia da –faloaren absentzia–, eta Badiouk ez du behar justifikaziorik edo absentziarik emakumea zein nazioa proiektu gisa planteatzeko.

Goikoetxeak planteatzen duen euskal estatugintza feminista ere egiteko dago, eta argi azaltzen du

nola eraiki beharko litzatekeen eta zergatik. Sexua kategoria politikoa dela esaten duenez, trataera politikoa eman behar zaio gizon-emakume diferentziari, «emakumea ez da [delako] gizonarekiko diferentea, menpekoa baizik, langileria ere ez da ugazabarekiko diferentea, menpekoa baizik», subalternoaren subalternoa.

Menpekotasun hori gainditzeko, estatu demokratikoa behar da, ahalmenduna, gai izan dadin kontrolatzeko eta berdintasuna inposatzeko, bera baita bortizkeria modurik eraginkorrenean gauzatu dezakeena. «Eta bortizkeria horiek guztiak identifikatu eta eraldatzeko asmatu zen feminismoa», dio Goikoetxeak.

Azken puntu bat komentatu nahi nuen amaitu aurretik, espazio publikoari eta espazio pribatuari dagokiona. Goikoetxeak jaso du Rawls pentsalari liberalaren teoria, zeinen arabera eremu publikoa eta pribatua bereizi behar diren, baina, publikoa lehenetsi egiten bada ere, pribatuari ez zaio inolako garrantzirik ematen, emakumeen espazioa den heinean.

Espazio pribatuak, ordea, badu maiz ikusten ez zaion dimentsioa. Eremu publikoan arau patriarkalak eta jakituria maskulinoa daude, eta espazio mugatua da, mugatua zentzu guztietan. Espazio pribatua, ordea, potentzialki infinitua da. Ez du mugarik. Gizon publikoari esleituriko espazioa kenduta, beste espazio guztia pribatua da, emakume-eremua alegia. Espazio infinitu honetan ikusi nahi izan zuten psikoanalista batzuek azalpen

bat ulertzeko zergatik den emakumea infinitua. Aurretik pentsalari batzuek uste zuten emakumeari infinitutasuna maitasunarekiko espektatiba ase-ezinetik zetorkiola; beste batzuek uste zuten orgasmo anitz izateko gaitasunetik zetorkiola. Azkenean, pentsatu zuten infinitutasuna egituran egokitu zaion espaziotik datorkiola, ezin ditu-eta bete beraren espektatibak espazio horretan kokaturik dagoen artean. Emakumea asegaitza izango da subjektu bihurtu arte, bere egitura osatu arte. Bitartean, emakumearen infinitutasunaz mintzatu gara, pribatuaren espazio infinituan.

Hitzaurre hau idazteko dudan espazioa, ordea, ez da infinitua. Kitzikagarria izan da irakurtzea Olariagaren, Goikoetxearen, Galfarsorearen eta Apaolazaren lanak. Lau egileei eskertu nahi diet egindako saio sakon eta interesgarria. Eta argitaletxeari ere eskerrak eman nahi dizkiot proiektu honetan parte hartzeko eman didan aukeragatik. Eskerrik anitz guztiei.

LAURA MINTEGI

Algorta, 2015eko azaroa